

HAUR HEZKUNTZA URTEKO PROGRAMAZIOA EGITEKO GIDA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Aurkibidea

0. Sarrera	1
1. Zergatik eta zertarako egin programazioa	2
2. Programazioa egiteko gida	3
❖ Inklusioa	4
❖ Aniztasunaren zaintza	4
❖ Familia (k)	4
❖ Pertsona	5
❖ Metodologia	6
❖ Hezitzaile taldearen esku-hartze estilo adostua	7
❖ Ebaluazioa	7
3. Programazioaren pausoak	8
4. Txantiloia	9
5. Adibideak	11
6. Bibliografia	29

HAUR HEZKUNTZA

URTEKO PROGRAMAZIOA EGITEKO GIDA

0. SARRERA.

Eskuartean duzun dokumentu honek eskolako urteko programazioa sortzerakoan gida lagungarria izatea du helburu. Indarrean dagoen 237/2015 dekretua du marko legalizat. Bertan finkatzen diren zutabe garrantzitsuenak jada eskolako curriculum programazioan jasoak izango dira. Bertatik eratorriko da ikasturteko programazioa. Hala, honako zutabe hauek agertuko dira nahi eta nahi ez:

- Ikaslearen segurtasun afektiboa bermatu eta bere nortasuna eraikitzen lagunduko duten: hezitzailearen edota hezitzaile taldearen esku-hartze estiloa, garapeneko autonomia (autodeterminazioa, autodirekzionala, erabakiak hartzeko, izaten izateko, arduratsua izateko... ahalmena eta eskubidea), sormena (bere osotasunean), mugimendua, esperimenezioa, naturarekin kontaktua, jolasa, kritikotasuna zein ekintzailetasuna garatzeko ahalmena eta eskubidea bermatu.
- Taldeko kidea eta kide aktiboa izatea. Inklusioa eta aniztasunaren zaintza oinarritzat hartzea.
- Familiak prozesu honetan izango duten parte-hartzea eta inplikazioa zehaztea. Bai eta, konpetentzien garapena, esperientzia eremuetako helburuen lorpena, ebaluazio adierazle eta irizpideak zehaztea...
- Hori dena ahalbideratuko duten espazio, material, denbora, tenpoak... nola, nork, zergatik, zertarako diseinatuko ditugun finkatuko dugu.
- Ebaluatzen ez dena ez denez baloratzen, aipatutako, noiz, nola, zertarako, zer... ebaluatuko dugun, zehaztuko du gure urteko programazioak.

Diseinuak aurreikuspena dakar inplizitu, baina ez dezagun ahaztu malgutasuna. Jo dezagun atalez atal.

1. ZERGATIK ETA ZERTARAKO EGIN PROGRAMAZIOA.

Programatzeak dakar; aurrez formatzea, janzteia, hausnartzea, erabakiak hartzea, planifikatzea, antolatzea, ebaluatzea eta berrantolatzea, hala baloratuz gero. Programazio didaktikoa planifikazio-garapen- eta ebaluazio-tresna da. Hori horrela, urtero, ikasturte hasieran eskola bakoitzak, programazio didaktikoak egiteko eta ebaluatzeko irizpideak ezarriko ditu. Prozesu honetan Berritzeguneetako aholkulariek bidaide izango dira, aholkua eta laguntza eskainiz. Horrez gain, Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio ebaluazio-prozesuaren nondik norakoak ikuskatzea.

Beraz, esan daiteke programazioa gure bidaide izatearen oinarriak eta norantzaren uhara bilakatuko dela. Denon artean garatu eta behar izanez gero eraldatzen joango dena.

2. PROGRAMAZIOA EGITEKO GIDA.

Sarreran aipatu bezala, programazioa marko legalean oinarriturik, aurrez, profesional taldearen formazio, hausnarketa eta erabakietatik eratorrikoa da ikasturte osorako aurreikusitako esku-hartzea.

237/2015 Dekretuaren markoaren barruan kokatutako den programazioak, profesional taldeak jada adostuak ondorengo puntuak izango ditugu:



Inklusioa Bakoitza bere ezaugarriekin, izanarekin, norbera izateko eskubidea.

Norbanakoaren nortasuna eraikitzen eta garatzen lagunduko diogula bermatua izango dugu eta hori nola egingo dugun profesional taldeak eskolako curriculum proiektuan jasoa izango du. Adibidez, norberaren erritmoa, nahiak, motibazioak, tenpoak errespetatuko ditugu, eta horretarako esperientzia eta mugimendua ahalbideratuko duen espazio ezberdinetatik askatasunez eta segurtasunez aritu ahal izango da ikaslea. Printzipio etiko hau gauzatu dadin, hezitzaile taldekideok zehaztuko dugu, justifikaturik, zergatik egingo dugun egingo duguna. Jakin badakigu gauza bat dela adina eta beste bat, garapen maila. Hori kontuan hartuta, nola antolatuko dugun erabakiko dugu eta hori gure programazioan jasoa.

Aniztasunaren zaintza Adin, kultura, hizkuntza, sexu... edozein dugula ere izaten izateko eta norbera izateko eskubidea dugu. Hau horrela, norbanakoaren garapenean oztopo baino aberastasuntzat dugu.

Familia(k) Beraien parte-hartzea, inplikazioa eta lankidetzat. Beraz, noiz, nola, zertarako zehaztu eta horren ebaluazioa nola egingo dugun jasoa izango dugu programazioan.

Ikaslearen, **persona**ren, eskubide hauek bermatu, garatu eta ebaluatuko ditugu eta hori jasoa izango dugu ICP-n eta ondorioz, programazioan, xehatuagoa eta zehaztuagoa:

- ❖ Bere **nortasunaren garapena eta eraikuntza**. Ez eraldaketa.
- ❖ **Segurtasun afektiboa**.
- ❖ Garapeneko **autonomia**.
- ❖ **Sormena**. Bere osotasunean. Pertsona batek bere eguneroko gertakariak, erronkak eta bizipenak, sormenez biziko baditu eta horretan pertsona aktiboa eta sortzailea bada, autoestimu, autonomia, segurtasuna, ekintzailetasuna... berez landuko ditu.
- ❖ **Ekintzailetasuna**. Ikaslearen autoerregulazioak berez ekintzailea izatera eramango du. Bide horretan bere buruaren entzule aktiboa izan behar baitu eta bere jakin-minak eta motibazioak bultzatuko baitute.
- ❖ **Esperientziez** ikasten dugu, eginez, errotik, **motibazio(e)tik**, **gozamenetik**, erronketatik.
 - ✓ 1go zikloan; segurtasuna, gorputzaren mugimendua eta esperientziaz bermatu.
 - ✓ 2. zikloan; segurtasuna, gorputzaren mugimendua, jolasa eta esperientziaz bermatu.
- ❖ Eguneroko bizitza eta **errealitatea ulertzeko eta interpretatzeko baliabideak**.
- ❖ **Taldeko kide sentitu, taldeko kide aktiboa izan**.
- ❖ **Kritikotasuna**: norberaren iritzi, nahiak inorenarengandik gailendu gabe, besteak kontuan harturik, adierazteko estrategiak.

Metodologia Pertsonaren garapen osoa eta integratua du xedetzat 237/2015

Dekretuak. Metodologia, hezkuntza-xedea lortzeko elementu giltzarria da. Zein ildo pedagogiko, zein ildo metodologiko, nola antolatuko dugun espazioa, zer izango dugun espazioan, nola funtzionatuko dugun espazioan, zein material eta zein motatakoa eskainiko dugun, zein kolore erabiliko ditugun, zein baliabide eskainiko ditugun... hori eta gehiago zehaztu du metodologiak. Hots, gure eskolako. Komunitateko, profesionalon identitatearen, garenaren islada den espazio horren osotasuna. Hau da, gure eskola zer den eta nola bizi dugun, garenaren argazkia da. Beraz, bizi garen eskolaren funtzionamenduak, espazioak, materialak, ikasle, pertsonaren, garapenean eragin zuzen zuzena izango du. Programazioan ondorengo puntuak ere zehaztuko ditugu:

- ❖ Eskolako espazioaren antolaketa. Barne zein kanpoko espazioa.
- ❖ Autonomia, sormena, kritikotasuna, ekintzailetasuna, mugimendua, jolasa, esperimentazioa, aniztasuna, nortasun propioa, bizipenak ahalbideratuko dituen funtzionamendua bermatu.
- ❖ Denboraren malgutasuna.
- ❖ Materiala ez egituratua izango da. Bakoitzak manipulatu dezala, sentitu, ondorioak atera, bere hipotesiak egin, materiala izan beza berari esaten dion "hori".
- ❖ Arazo-egoera errealak ahalbideratuko dituen espazio, material eta bizipenak eskainiko ditugu. "Hemen eta orain", espazioa horretan, ikasle, pertsona guztiek aurkitu behar dute, jakin-mina, harridura, motibazioa... bizitzarekin harremanetan jarriko dute eta hortik eratorriko dira erronkak, arazo-egoera errealak, zentzuzkoak direnak ikasleentzat. Ondorioz, programazioan oso ondo zehaztu eta planifikatuko ditugu espazioak, materialak, dekretuan agertzen diren zutabeen lanketa, hezitzailearen esku-hartzea, komunitatearen parte-hartzea eta ebaluazioa. Baina ezin aurreratu dezakegu alde zuzenetik, ikasle horrek zein arazo-egoera izango dituen ikasturtean. Bizi ahala sortuko direlako. Aitzitik, alde zuzenetik zehaztu dezakegu nolako eskola sortu dugun, bizi ahal izateko. Bizi ahala bizitzen ikasteko.

Hezitzaile taldearen esku-hartze estilo bateratua

Nolakoa izango den gure presentzia, nolakoa izango den erabiliko dugun lengoia, noiz parte-hartuko dugun zuzenean, zertarako egongo garen espazioan, noiz eta nor egongo garen dokumentazio-behaketa lanetan... profesional taldeak erabakia izango du, aurreko puntuetan aipaturiko dena gauzatu ahal izateko.

Ebaluazioa Ezinbesteko atala. Zer, nola, zertarako, zertan, norekin, noiz egin

edota partekatuko dugun adostuko du hezitzaile taldeak:

- ◆ Zein kompetentzia, esperientzia eremuetako helburu, ebaluazio irizpide eta adierazle:
 - ✓ Zein espazio, material, esku-hartze, arazo-egoeretan.
- ◆ Zein pertsona ebaluatuko dugu; ikasle, hezitzaile, hezitzaile talde...
- ◆ Nola egingo dugu metaketa; dokumentazio bidez, txantiloiak erabiliez, portfolioen bidez, elkarrizketen bidez...
- ◆ Zer, noiz, norekin partekatuko dugun eta zertarako.
- ◆ Nola partekatuko dugun.
- ◆ Zer egingo dugun jasokotako informazioarekin.
- ◆ Programazio didaktikoak ebaluatzeko, lorpen-adierazleak:
 - a) Ikasturteko ikasle bakoitzaren apendizai zein garapen integralerako zehazturiko ebaluazio irizpide eta adierazleen ebaluazioaren garrantzia.
 - b) Material eta baliabide guztien (ez soilik didaktikoen) eta erabilitako metodo didaktikoei eta metodologikoei emandako denboraren eta espazioaren banaketa.
 - c) Eskolako komunitateko kideen ongizate eta giroan, metodo didaktikoek eta pedagogikoek izandako eragina.

3. PROGRAMAZIOAREN PAUSOAK.

0. SARRERA

Hezkuntza proiektua oinarri hartuta, eskolako Haur Hezkuntza etaparen oinarriak azaldu.

1. KOMPETENZIEKIN GARAPENA

Etapan adosturiko kompetentzien inguruko lanketa jaso. (IKUS TXANTILOIA 1)

2. IKASTURTEKO NORABIDEA

Kompetentzien inguruko lanketa mailaka nola gauzatuko den adierazi. (IKUS TXANTILOIA 2)

3. EBIDENTZIAK

Ikasturtean zehar eginikoa sailkatua.

4. HEDATZEA

Noiz (hasieran, amaieran...), nola (blog, bilera, web,..), nori (klaustro, komunitate, familia,...) zehaztu.

5. PROGRAMAZIOAREN EBALUAZIOA

Ikasturtearen amaieran. eskolako oroitidazkian jasotzeko eta hurrengo ikasturteko programazioa egiterakoan kontuan edukitzeko.

4. TXANTILOIAK.

URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA		
ESKOLA:	KODEA:	IKASTURTEA:
HEZITZAILEAK:		
ETAPA:		

HELBURUAK (esperimentazio eremuetakoak):	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
KONPETENTZIAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
METODOLOGIA (espazioaren antolaketa, materiala,denboraren antolaketa, hezitzaileen esku-hartzea, funtzionamendua...).Kontuan izan zutabeak(inklusioa, aniztasunaren zaintza, segurtasun afektiboa, garapeneko autonomia, sormena, ekintzailea izatea, kritikoa izatea, norbera izaten jarraitzea, taldekidea eta taldekide aktiboa izatea...	HEZITZAILEAREN ESKU-HARTZEA (Zer, noiz, zertarako, nola, nola ebaluatu...)
EBALUAZIO TRESNAK (porfolioa, argazkiak, bideoak, audioak, behaketa eskalak...)	EBALUAZIOREN ONDORIOAK (antolamendu-egokitzapenak, plangintza berriak, erabaki berriak....)
OHARRAK	

MAILAKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

MAILA:	IKASTURTEA:	
ETAPA:	HEZITZAILEAK:	

HELBURUAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
KONPETENTZIAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
METODOLOGIA	HEZITZAILEAREN ESKU-HARTZEA
EBALUAZIO TRESNAK	EBALUAZIOREN ONDORIOAK
OHARRAK	

An aerial photograph of a coastline. The top half of the image shows white, foamy waves crashing against a dark blue sea. The bottom half shows a lighter blue, sandy beach area. The overall color palette is various shades of blue.

ADIBIDEAK

KONPETENTZIAK ETA EBALUAZIO ADIERAZLEAK

Konpetentzia haurrak duen ahalmen gisa ulertzen bada, 2 urteko gelako haurrek unean adierazten dutena jasoko da atal honetan.

I- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia

- Zein egoeratan bilatzen du komunikazioa
- Norekin bilatzen du komunikazioa
- Zein helbururekin komunikatzen da
- Zein lengoia erabiltzen du komunikatzeko
- Zein izan da komunikazio konpetentziaren garapena
-

II- kisten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

- inguruarekin duen harremanen jarraipena:
 - Nolako harremanak bilatzen ditu
 - Norekin harremantzen da: objektu, heldu, haur...
- Bizipen Edo ta esperientziak burutzeko jarrera: inizatiba, pasibotasuna,...
- Egoera berrien aurrean kokatzen den lekua, unea, jarrera,...
-

III- Elkarbizitzarako konpetentzia

- Bere ni-aren garapen unea
- Bera eta besteen artean egiten dituen loturak
- Errutinen aurrean erakusten duen jarrera: ziurtasuna, imitazioa, ...

IV- Ekimen eta espirtu ekintzailerako konpetentzia

- Bere nortasunaren adierazpena Jaso
- Bere burua egoera ezberdinetan nola kudeatzen duen behatu
- Egunerokotasunean zein egoera bilatzen ditu eta nola garatzen ditu
- ...

V- Norbera izaten ikasteko konpetentzia

- Apego irudiarekin duen harreman eta ematen ari den garapena: banaketa, lotura, irekitzea,...
- Bere ni-aren adierazteko agertzen dituen lengoia eta estrategiak
- Sinbolizazio faseen azterketa eta garapenaren jarraipena.
-

1- Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia

- Hizkuntza konbentzinalerako hurbilketa uneen jarraipena.
- Hizkuntzaren erabilera: imitazioa, esperimentazioa, konplexutasuna,...
- Elkarrizketa, kontakizun, ... garapen sinbolikoa
-

2- Matematikarako kompetentzia

- Egunerokoan ematen diren sekuentzi eta egoeren jarraipena egiten duen behatzea.
- Materialarengana edo ingurunean mugitu/harremantzen den unetan mundu matematikoarekin lotura duten egoerak identifikatzea
- espazioan mugitu eta kokatzeko koordinazioa aztertzea.
-

3- Zientziarako kompetentzia

- Objektu ezberdinekin aritzeko ohiturak jasotzea.
- ezagutzen dituen objektu eta eskaintzen zaizkion objektu berrien arteko harreman loturak aztertzea.
- ekintza ezberdinetan ematen dituen uneak biltzea eta hauen arteko erlazioak behatzea.
- ...

4- Teknologiarako kompetentzia

- Zein, nola eta zertarako proposatzen diren eta erabileraren arteko loturak behatzea eta jasotzea.
- Hauneganako interesa eta erabileraren arteko koherentzia aztertzea.
-

5- Kompetentzia sozial eta zibikoa

- Eskola komunitatean eskaintzen diren ekimenak diseinatzerakoan kontutan hartzen diren irizpideen zerrendatzea.
- Egunerokoan ohiko dituen harremanen esanahia eta izaera jasotzea.
- hezkuntza ez bortitzaren oinarritzko nozioen garapen prozesua ahalbideratzea.
-

6- Arterako kompetentzia

- bere ni-aren adierazpenean erabiltzen dituen lengoia ezberdinen azterketa eta jasotzea.
- lengoia nagusiaren garapen prozesua behatzea.
- ...

7- Kompetentzia motorra

- berariazko mugimenduaren garapena ahalbideratzea
- mugimenduen izaera jasotzea: menpekotasuna, oreka, ...
- gorputz tonua eta mugimenduen arteko koherentzia aztertzea
- ...

METODOLOGIA

(espazioaren antolaketa, materiala, denboraren antolaketa, hezitzaile taldearen esku-hartzea, funtzionamendua...).
Kontuan izan zutabeak (inklusioa, aniztasunaren zaintza, segurtasun afektiboa, garapeneko autonomia, sormena, ekintzailea izatea,

Espazioaren diseinua

- Zorua: ahalik eta naturalen, goxoa, kolore neutroa (alfonbrekin?), gogorra
- Sapaia: kolore neutroa, argi ez zuzena-beroa
- Hormak: Kolore neutroa, funtzionala (zergatik daude daudenak: informatzeko, apaintzeko, ...)
- Koloreak: neutroaetik hasita geruzak osatzen joan
- Altzariak: tamaina, zertarako, kokapena: perimetrikoa? laberintikoa?
- ...

Espazioaren zergatiak

- Lengoia ezberdinak kontutan hartzen dituenak
 - Espazio sinbolikoa: imitazioetik abiatu arren, norberaren ni-a adieraziko duen lengoia propioa
 - Eraikuntza espazioa: ni-aren garatzearen isla, horizontaletik bertikalitatearen estruktura.
 - Mugimendu espazioa: gorputzaren ahalmen mugak oreka/desorekan jarriaz garatzera eramango duena
 - Sormen espazioa: teknika eta material ezberdinekin (arte, musika, hizkuntza, ...) esperimentatzea ahalbideratuko duena

Materialaren diseinua

- Ezaugarriak: material mota, tamaina, bolumena, ...
- Zertarako: manipulatzeko, sartu-atera, hustu-bete, mugitu, erlazioak sortu, ...
- Kokapena: lurrean, armairutan, erabilera askerako, ...
- Tamaina
- ...

Hezitzailearen esku-hartzea

- Giro zainzailea: materialen kutsadura, zarataren neurria, ...
- Harremanen eredu: zaintza unetan, aguretan, eskaeretan, ...
- Kokapena: bertikala behaketa eta segurtasuna adierazteko, parekoa harreman egoera baikorrak eskaintzeko
- Hezkuntza ez bortitzaren eredu
- ...

EBALUAZIOA

(Zer, noiz, zertarako, nola, nola ebaluatu...)

METODOLOGIAREN EBALUAZIOA

- Ikasturte haseran: planifikazioa azaltzeko
- Hiruhile amaieran baino lehen: planifikazioa eta egunerokoa uztartzeko
- Ikasturte amaieran: alderdi positibo eta hobetzekoak jasotzeko.

HEZITZAILEEN EBALUAZIOA

- Koordinazio funtzioak
- Esku-hartze motak
- Planifikazio eta bideratzeak
- ...

HAURREN EBALUAZIOA

- Ikasturte haseran: norbanakoaren unea azalduko duen jasoketa
- Hiruhile amaieran baino lehen: familiei haurraren unea eta garapena azaltzeko
- Ikasturte amaieran: haurraren ibilbidea eta garapena laburbiltzeko

EBALUAZIO TRESNAK

- Txantiloiak
- Erregistroak
- Dokumentazioa
- Koordinazioak
- Familiekin informazio trukaketa: bilera, web guneak, portfolioak...

EBALUAZIOREN ONDORIOAK (antolamendu-egokitzapenak, plangintza berriak, erabaki berriak...)


OHARRAK

- ✓ **Haurra familia baten partaide dela kontutan hartu behar dugu, beraz haurra bakarrik ez familia ere eskolara inplikatu behar dugu. Horregatik familiarizazio garaiari arreta berezia jarriko diogu: haurra eskolaratu baino lehen egingo ditugun elkarrizketetan, ikasturte zehar antolatuko diren ekintzetan, eguneroko joan etorrietan,...**
- ✓ **Famili gunetik eskola komunitate batera sartzen da. Eskola komunitateak badu dinamika eta eguneroko bat, zaindu behar dugu hau 2 urteko haurren behar, nahi eta egoeretara egokitzen den ala ez, eta ez alderantziz. Horregatik zainduko da aurretik aipaturiko guztiaz gain zaintza uneekin lotura zuzena duten egoerak: non, nork eta zein unetan ematen diren; ordutegiaren antolaketa, familien partehartzea egunerokoan,....**
- ✓ **MEMORIA: ikasturteko programazioa izanik, amaieran ibilbidean gertaturikoa bildu behar da, hurrengo ikasturterako abiapuntu bilaka daitekeena. Horretarako atal bakoitza aztertu eta kontutan daitezkeen arloak:**
 - **Planifikaturikoaren alderdi positibo eta indarguneak.**
 - **Planifikaturikoaren alderdi zailak eta ahuleziak.**
 - **Haurrengan eman den bilakaera eta gure programazioarekin izan duen lotura.**
 - **Hezitzaileen esku-hartzen garapena.**
 - **Ebaluazio tresnen funtzio eta baliagarritasuna.**
 - **Eskola komunitatearen partaidetza eta elkarlana.**
 - **Material eta baliabide didaktikoen egokitasuna, eta erabilitako metodo didaktikoei eta pedagogikoei emandako denboraren eta espazioren banaketa.**
 - **Eskola espazioko eta eskola giroaren hobekuntzan metodo didaktikoek eta pedagogikoek izandako eragina.**


URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA		
ESKOLA:	KODEA:	IKASTURTEA:
HEZITZAILEAK:		
ETAPA: HH 2. zikloa		

HELBURUAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK
Haurren garapenean behaketa eta unean uneko esku-hartze egokitua eskaintzea.


Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua




2. Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.




3. Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatzeko-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.







4. Ekimen txikiak eta norberaren ekintzak poliki-poliki planifikatzea eta sekuentziaztea, egiteko errazak edo arazo-egoerak pixkanaka ebazten hasteko eta nork bere buruaren gaineko konfiantza-sentimendua handitzeko; frustrazio txikiak onartzen joatea, sortzen zaizkion zailtasunak gainditzeko jarrera adieraztea eta gainerako pertsonengandik behar den laguntza bilatzen hastea





5. Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea, norberaren jokabidea erregulatu eta norberaren eta gainerako pertsonen beharrietara egokitzeko, eta sumisio nahiz nagusitasuneko jarrerak baztertzea.










12. Haurraren bizi-ingurunean egiten diren bertako eta kanpoko festak, tradizioak eta ohiturak ezagutzea eta haietan parte hartzea, haiekin gozatu eta nortasun-zeinu diren aldetik balioesteko.



KONPETENTZIAK ETA EBALUAZIO ADIERAZLEAK

Konpetentzia haurrak duen ahalmen gisa ulertzen bada, aurretik jaso diren helburuen lerro mailak adieraziko du haurra zein unetan aurkitzen den.

I-Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

IV-Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

II-kasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

V-Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

III-Elkarbizitarako konpetentzia

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

1-Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

4-Teknologiarako kompetentzia

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

2-Matematikarako kompetentzia

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

5-Kompetentzia sozial eta zibikoa

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

3-Zientziarako kompetentzia

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

6-Arterako kompetentzia

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

7-Kompetentzia motorra

Non kokatzen da? Nola definitzen du haurra?

METODOLOGIA

(espazioaren antolaketa, materiala, denboraren antolaketa, hezitzaile taldearen esku-hartzea, funtzionamendua...).
Kontuan izan zutabeak (inklusioa, aniztasunaren zaintza, segurtasun afektiboa, garapeneko autonomia, sormena, ekintzailea izatea,

Espazioaren diseinua

- Zorua: ahalik eta naturalen, goxoa, kolore neutroa (alfonbrekin?), gogorra
- Sapaia: kolore neutroa, argi ez zuzena-beroa
- Hormak: Kolore neutroa, funtzionala (zergatik daude daudenak: informatzeko, apaintzeko, ...)
- Koloreak: neutroaetik hasita geruzak osatzen joan
- Altzariak: tamaina, zertarako, kokapena: perimetrikoa? laberintikoa?
- ...

Espazioaren zergatiak

- Lengoia ezberdinak kontutan hartzen dituenak
 - Espazio sinbolikoa: imitazioetik abiatu arren, norberaren ni-a adieraziko duen lengoia propioa
 - Eraikuntza espazioa: ni-aren garatzearen isla, horizontaletik bertikalitatearen estruktura.
 - Mugimendu espazioa: gorputzaren ahalmen mugak oreka/desorekan jarriaz garatzera eramango duena
 - Sormen espazioa: teknika eta material ezberdinekin (arte, musika, hizkuntza, ...) esperimentatzea ahalbideratuko duena

Materialaren diseinua

- Ezaugarriak: material mota, tamaina, bolumena, ...
- Zertarakoa: manipulatzeko, sartu-atera, hustu-bete, mugitu, erlazioak sortu, ...
- Kokapena: lurrean, armairutan, erabilera askerako, ...
- Tamaina
- ...

Hezitzailearen esku-hartzea

- Giro zainzailea: materialen kutsadura, zarataren neurria, ...
- Harremanen eredu: zaintza unetan, aguretan, eskaeretan, ...
- Kokapena: bertikala behaketa eta segurtasuna adierazteko, parekoa harreman egoera baikorrak eskaintzeko
- Hezkuntza ez bortitzaren eredu
- ...

EBALUAZIOA

(Zer, noiz, zertarako, nola, nola ebaluatu...)

METODOLOGIAREN EBALUAZIOA

- Ikasturte haseran: planifikazioa azaltzeko
- Hiruhile amaieran baino lehen: planifikazioa eta egunerokoa uztartzeko
- Ikasturte amaieran: alderdi positibo eta hobetzekoak jasotzeko.

HEZITZAILEEN EBALUAZIOA

- Koordinazio funtzioak
- Esku-hartze motak
- Planifikazio eta bideratzeak
- ...

HAURREN EBALUAZIOA

- Ikasturte haseran: norbanakoaren unea azalduko duen jasoketa
- Hiruhile amaieran baino lehen: familiei haurraren unea eta garapena azaltzeko
- Ikasturte amaieran: haurraren ibilbidea eta garapena laburbiltzeko

EBALUAZIO TRESNAK

- Txantiloiak
- Erregistroak
- Dokumentazioa
- Koordinazioak
- Familiekin informazio trukaketa: bilera, web guneak, portfolioak...

EBALUAZIOREN ONDORIOAK (antolamendu-egokitzapenak, plangintza berriak, erabaki berriak...)

MEMORIA

(ikasturtearen ibilbidea neurtu eta hurrengo ikasturteko oinarriak ezartzen lagunduko duena)

- **Planifikaturikoaren alderdi positibo eta indarguneak.**
- **Planifikaturikoaren alderdi zailak eta ahuleziak.**
- **Haurengan eman den bilakaera eta gure programazioarekin izan duen lotura.**
- **Hezitzaileen esku-hartzen garapena.**
- **Ebaluazio tresnen funtzio eta baliagarritasuna.**
- **Eskola komunitatearen partaidetza eta elkarlana.**
- **Eskola espazioan eta eskola giroaren hobekuntzan metodo didaktikoek eta pedagogikoek izandako eragina.**

4. BIBLIOGRAFIA.

- ❖ CABRERIZO DIAGO, J. (2010). Guía para elaborar una programación por competencias. Madrid: UNED.
- ❖ CABRERIZO DIAGO, J.; RUBIO, M. J. eta CASTILLO, S. (2007). Programación por competencias. Formación y Práctica. Madrid: Pearson.
- ❖ ESCAMILLA GONZÁLEZ, A. (2009). Las competencias en la programación de aula (Vol. I): Infantil y primaria (3-12 años). Serie Competencias. Barcelona: Graó.
- ❖ ESCAMILLA GONZÁLEZ, A. (2011). Las competencias en la programación de aula (Vol. II): Educación secundaria (12-18 años). Serie Competencias. Barcelona: Graó.
- ❖ GIMENO SACRISTÁN, J. (2008). Diez tesis sobre la aparente utilidad de las competencias en educación. In GIMENO SACRISTÁN, J. [et al.] (2008). Educar en competencias, ¿qué hay de nuevo? Madrid: Morata.
- ❖ MOYA OTERO, J. eta LUENGO HORCAJO, F. (2010). La concreción curricular de las competencias básicas: un currículo adaptativo e integrado. CEE. Participación Educativa, 15, 127-141. or.
- ❖ ORTEGA OSUNA, J.L. eta VÁZQUEZ FERNÁNDEZ, P. (2012). Competencias básicas. Desarrollo y evaluación en Educación Primaria. Madrid: Wolters Kluwer.
- ❖ ORTEGA OSUNA, J.L. eta VÁZQUEZ FERNÁNDEZ, P. (2012). Competencias básicas. Desarrollo y evaluación en Educación Secundaria Obligatoria. Madrid: Wolters Kluwer.